

Etika Publikorako Batzordea

5/2019 erabakia

ERABAKIA, ETIKA PUBLIKORAKO BATZORDEARENA, (...)KO BIZILAGUN (...)AK JARRITAKO SALAKETARI BURUZKOA. SALAKETA, ZEHAZKI, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA KUDEATZEAZ ARDURATZEN DIREN (...)KO UDALEKO KARGUDUNEN JARDUERAREN HARIRA JARRI ZEN, MENDEKOTASUN HANDIKO KOLEKTIBOARI DAGOKIONEZ ETIKA ETA JOKABIDE KODEA (EJK) URRATU ZUTELAKOAN.

1.- 2019ko maiatzaren 14an, Etika Publikorako Batzordearen Idazkaritzara igorritako mezu elektroniko batean, interesdunak Etxeko Laguntza Zerbitzua kudeatzeaz arduratzen diren (...)ko Udaleko kargudunen kudeaketari lotutako gertaera batzuen berri eman zuen, aztertu eta ebaluatu ditzagun, herriko agintariek etika-kodea betetzen ez dutelakoan.

2.- Idatzian azaltzen duenez, bere ama, (...), gaixo dago eta Etxeko Laguntza Zerbitzua jasotzen du 2016ko urtarrilaz geroztik. Desgaitasun hori dela medio, interesduna da bere amaren tutore judiziala.

3.- Idatzian, interesdunak hiru gertaera aipatzen ditu, bere ustez oso larriak. Gertaera horiek, salataileak dioenez, azken bi urteotan gertatu dira, eta zerikusia dute Mendekotasun Handiko kolektibo batekin –udalerrian ezaugarri berak dituzten beste pertsona batzuei ere eragiten baitie– eta goian aipatutako aldi horretan kolektibo horri dagokionez udalak gauzatutako eginbideekin.

4.- Lehenengo gertaerak zerikusia du (...)ko Udaleko Etxeko Laguntza Zerbitzu Minimoak ez betetzearekin; horri buruz, salataileak udalak bete gabeko hiru lege/agindu/betebehar salatzen ditu: Eusko Jaurlaritzaren Agindua, gutxieneko zerbitzuak, horien onuradunak eta eginkizun espezifikoak ezartzen dituena; Udalaren Oinarri Teknikoen Orria, Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuak jasotzen dituena, eta Gobernuaren Kode Etikoa, kontuan hartuta zein izen den udalaren erantzuna.

5.- Bigarrenak zerikusia du ELZren kuotak birkalkulatzearekin; salataileak dio 2015eko abenduan, zerbitzua hastean, egin zela lehendabizi, eta, orain, 2019ko otsailean, egin dela berriro, baina berez urtero egin behar dela, legeriara egokitu eta bertan adierazten diren kenketak aplikatzeko (mendekotasun-gradua eta ondarea).

6.- Hirugarrena, berriz, Gardentasunaren Legeriari lotuta dago, kasu honetan ez dela betetzen uste duelako. Salataileak adierazten du ELZren kostuari lotutako gertaerak direla eta, informazioa eskatu zela, udal-bitartekoen bidez, Gardentasun Legearen arabera, baina eskaera hori ez zela erregistratu Bezeroentzako Arreta Zerbitzuan (BAZ). Esatean hori araudiaren

aurkakoa zela eta arrazoiez galdetuta, adierazi zitzaion Bezeroentzako Arreta Zerbitzuaren arduradunak erantzungo ziola, baina, dioenez, erantzunaren zain jarraitzen du.

7.- Idatzian esaten denez, lehenengo gertaera horiek Arartekoaren esku jarri ziren, 2018ko otsailean, baina oraindik, 14 hilabete igaro ondoren, ez da ebazpenik eman. Eta ELZren kostua birkalkulatzeari dagokionez, esaten du oraindik zain daudela, udalak ez dielako erantzun, zegokien urteetan egin ez delakoan.

8.- Maiatzaren 17an, Etika Publikorako Batzordea harremanetan jarri zen salatzaillearekin, ohartarazteko jarritako salaketan (...)ko Udaleko arduradun publiko jakin batzuen jarrera eta portaerak aipatzen zirela soilik, eta esparru hori Batzorde honen jarduketa-eremutik kanpo zegoela, kontuan hartuta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargudunak direla Batzordearen jardunaren xede bakarrak, hau da, kargu publikodunen katalogo eguneratuan sartuta daudenak, bat etorritz Kargu publikodunen jokabide-kodea eta haien interes-gatazkak arautzen dituen ekainaren 26ko 1/2014 Legearen 4. artikuluekin.

9.- Nolanahi ere, salatzailleak Batzorde honen idatzizko erabaki espresua eskatu du, eta EPB honek ezin dio uko egin eskaera horri.

10.- Horiek horrela, EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren hitz-tarteak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, erabaki hau hartu du aho batez:

ERABAKIA

I.- Aurrekariak

1.- EJK, Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, eta euskal herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko egindako apustuaren fruitua da. Horretarako, aipatutako kodeak Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko kargu publikodunei eskatu beharreko jarrera, jokabide, eta portaerak identifikatzen ditu, haien jarduketak, hala publikoak nola pribatuak, bat etor daitezen kode horretan finkatutako balio, printzipio eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua da integritatea eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordetzea, haren eraginkortasuna sendotzea eta herritarrek beren erakundeetan duten konfiantza gutxitu ez dadin ahalegintzea.

2.- EJK-k bost balio ditu ardatz: integritatea; bikaintasuna; politika eta kudeaketa bat etortzea; lidergoa, eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna. Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek

haiek erreferentziatzen hartuta jardun behar du, erantzun egokia emateko beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko benetako interesa duten gainerako pertsonen helarazitako gai eta zalantza etikoei.

3.- Horretarako, eta 16.3.1 d). apartatuan ezarritakoaren arabera, EPBren eskumena da "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzea, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzea".

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- 4/2015 eta 1/2017 erabakietan adierazi genuenaren arabera, Etika eta Jokabide Kodeak, zeina Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu baitzen, EHAA-n argitaratzen denetik aurrera sortzen ditu ondorioak —urte horretako ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta kodearen 2. apartatuan zehaztutako kargu publikodunentzat soilik du indar loteslea, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko banakako atxikipena formalizatu ondoren. Kodearen 18.2 apartatuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz ezarri ere: "Kodea banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

2.- Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, zeinaren bidez erregulatzen baitira Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak, ez du aldatu EJK-k onartua izan zen unetik beretik ezarritako aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori. Lege horren 5, 6, 7 eta 8. artikuluetan, "kargu publikodunen jokabide-kodea zuzentzen duten printzipio orokorrak" jasotzen dira, eta printzipio horiek Legea indarrean sartu ondoren dira soilik lotesleak —Legea 2014ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean—, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik lotzen dituzte, kargu publikodun horiek ofizialki izendatu eta Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze-sistemaren bidez, Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren.

3.- Ondorioz, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak 4. artikuluan aurreikusten duen katalogoan sartuta dauden kargu publikoak soilik behartzen ditu EJK-k —horrenbestez, baztertu egiten dira katalogo horretan ez datozenak—, eta bakarrik izendapena formalizatzen denetik kargu-uzteak ondorioak dituen egunera arte.

4.- Aurreko puntuetan ezarritako irizpideak aplikatuz, EPB honek ez dauka iritzirik emateko eskumenik, ez kargu publikorik betetzen ez duten funtzionarioen kontrako salaketei dagokienez (1/2017 erabakia), ez Katalogo eguneratuaren barruan sartutako kargu publiko baterako izendatuta egonik banakako atxikipena egin gabe duten pertsonen dagokienez (11/2017

Erabakia). Bi kasuetan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko zerbitzuak ematen ari ziren pertsonak ziren, baina ez zituzten betetzen Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legeak eta Etika eta Jokabide Kodeak beren aginduen mende dauden pertsonak definitzeko orduan ezartzen dituzten betekizun espezifikoak, zeinak baitira: kargu publiko bezala izendatuta egotea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak Arautzen dituen Legearen 4. artikuluan aurreikusitako Katalogo eguneratua jasotakoaren arabera, eta EJKrekiko banakako atxikipena egina edukitzea (Katalogo eguneratua gaur egun martxoaren 26ko 51/2019 Dekretuan jaso dago). 2017ko Memorian, EPB honek bi aholku eman zituen bi kasu horietarako.

5.- 1/2019 Erabakian, adierazi dugu ez dela onartzen kargu publikodun baten aurkako salaketa baldin eta, nahiz eta Eusko Jaurlaritzak formalki izendatu, dena delako kargudunak ez badu parte hartzen EAEko sektore publikoan eta ez badago kargu publikodunen Katalogo eguneratua figura instituzional berezi eta bakarra izateagatik.

6.- Eskuartean dugun kasuan, salaketa areago doa, zeren ez dira salatu Eusko Jaurlaritzak izendatutako kargu publikodunak, baizik eta toki-administrazio bateko hautagaiak edo haiek izendatutako konfiantzako pertsonak, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikotik erabat aparte daudenak. Bistan da, beraz, ez dagokigula salaketa onartzea, EPB honen jarduketaremu gaituzten duelako.

7.- Salaketa (...)ko Udalarari jarri zaio, eta ez dakigu udal horrek ba ote duen EAEko sektore publikoko kargudun publikoei ezartzen zaien kodearen antzeko sistema instituzionalik, baina gogorarazi nahi dugu Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak bere 35. artikulua, zeinean espresuki aurreikusten baita toki-hautetsientzako jokabide-kodeak onartzeko aukera, haietara atxiki daitezkeen udalean lan egiten duten goi-kargudunak eta zuzendaritzakideak; era berean, aurreikusten da jarraipen, kodean kontrol eta ebaluazioko sistema bat ezarri ahal izango duela, onartutako kodea toki-erakunde bakoitzean nola aplikatzen den jakiteko.

Legeak ematen duen aukera hori baliatuz, autonomia-erkidegoko udal batzuek integritate instituzionalerako sistema propioak ezarri dituzte. Salatzaileari aholkatzen diogu begira dezala ea hori den (...)ko Udalaren kasua, eta, baiezkoan, bere salaketa aurkez dezala udaletxean horretarako gaitutako instantzian.

Hori guztia aintzat hartuta, EPB honek honako hau erabaki du, aho batez.

ERABAKIA:



Ez onartzea interesdunak aurkeztutako salaketa, arrazoi honengatik: salaketa udaletxe bateko arduradun publiko batzuen kontra jarri da, baina pertsona horiek ez dira EJKren hartzaileen kolektiboan sartzen –kolektibo horretara mugatzen da EPB honen jarduketa-eremu subjektiboa–, eta ez daude kargu publikodunen katalogo eguneratuan, zeina martxoaren 26ko 51/2019 Dekretuz onartu baitzen.

Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2019ko ekainaren 16a.